



## AEBko hauteskundeak: bozkatuenak ez du beti irabazten


Hillary Clinton demokrata eta Donald Trump errepublikanoa estatubatuarren botoak eskuratzeko lehian ari dira, baina Ameriketako Estatu Batuetako presidentea Hauteskunde Kolegioak aukeratzen du.

Estatubatuarrek bozka emango dute asteartean, hala ere ez dute zuzenean hautatuko presidentea. Eginkizun hori Hauteskunde Kolegioari dagokio, baita presidenteordea aukeratzea ere. Estatu guztietako 538 ordezkari osatutako batzordea da. Ordezkar horiek erabakiko dute, boto bidez eta estatubatuar guztien izenean, AEBko presidente berria.

Hauteskunde Kolegioa 1787an sortu zuten AEBko Konstituzioaren egileek, herritarrek boto zuzen bidez presidentea aukeratzea baztertua, estatu txikiak handien aurrean babesteko arudioarekin.

Hauteskunde Kolegioan estatu bakoitzari dagokion ordezkari kopurua bat dator estatu horrek dituen senatari eta kongresista kopuruarekin. AEBko Kongresuan 435 eserleku daude eta Senatuan 100. Gainera, Columbiako Barrutiak beste hiru delegatu ditu. Beraz, guztira, 538 ordezkari dago osatuta Hauteskunde Kolegioa. Horrenbestez, Clintonek eta Trumpek 270 boto eskuratu behar dituzte batzorde horretan AEBko presidente izateko.

Boto gehien dituzten estatuak hauek dira: Kalifornia (55), Texas (38), Florida (29), New York (29), Pennsylvania (20), Illinois (20) eta Ohio (18).



Gauzak horrela, berdin dio estatu batean irabazten hautagai batek milioi bat botoko tartearrekin edo boto bakarraren aldearekin irabazten duen, estatu horretako ordezkari guztiak bereak izango baitira Hauteskunde Kolegioan. Demagun Clinton gailentzen dela Kalifornian, Hauteskunde Kolegioan kaliforniarrak ordezkatu dituzten 55 hautesleak bereak izango dira.

Ohikoena da Hauteskunde Kolegioak eta estatubatuarrek bozkatutakoa bat etortzea, baina Ameriketako Estatu Batuetako historian hauteskundeak galdu dituzten lau presidente izan dira. 2.000 urtean adibidez, George W. Bushen % 0,51ko aldeagatik galdu zuen Al Gorekin izan zuen lehia hauteskundeetan, baina Hauteskunde Kolegioan 271 boto lortu zituen eta presidente izendatu zuten.

## Gutxienez 239 pertsona desagertu dira Mediterraneoan bi ontzi hondoratuta 4.000 migrante inguru hil dira itsaso honetan azken 10 hilabeteetan

Errefuxiatuz beteriko bi ontzi hondoratu dira Mediterraneo itsasoan, aste honetan. Libiako kostatik gertu, eta 239 pertsona desagertu dira. Mediterraneoan gurutzatu nahian 3.940 pertsona hil dira 2016 urteko lehen 10 hilabeteetan, Migrazioen Nazioarteko Erakundearen arabera. Iaz urte osoan baino 240 gehiago dira. Datuak jasotzen direnetik, urterik beltzena da. Gainera, adituek ohartarazi dutenez, ez dago itsasoan hildakoen kopuru zehatza jakiterik; datu ofizialek erakusten dutena baino handiagoa litzateke giza hondamendia.

Europara bizirik iritsi direnak 333.384 dira. Gehiengoa Grezia (169.706) eta Italiako kostaldeak (158.205) harrapatuta. Azken hauetatik, 9.000 inguru itsasoan erreskatatu behar izan dituzte. Era berean, Greziara iritsi diren gehiengoa (%42) gizonezkoak direla jakinarazi dute. Haurrak %37a dira eta emakumeak %21a. Hala ere, Europara iritsi diren migrante kopurua iazkoa baino baxuagoa da.



Fatim Jawara, Gambiako futbol selekzioaren atezain gaztea, Mediterraneoan urperatzen azken biktima ezaguna izan da.

## Barakaldok 5.500 bonu jarriko ditu salgai



Barakaldoko Udalak eta bertako Merkataritza eta Enpresarien Elkarteak 5.500 bonu jarriko dituzte salgai datorren astean, bertako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektoreetan erosketak sustatzeko. Horiek baliatuz, 30 euroko erosketak egin ahalko dira, horiek eskuratzeko 20 euro bakarrik ordainduta.

Bonua erosi ondoren, azaroaren 9tik abenduaren 14ra bitartean erabili ahalko dira ekimen honetara atxikitako establezimendu eta zerbitzu enpresetan.

Atxikitako establezimenduek bereizgarri bat jarriko dute erakusleihoan edo sarrerako atean. Barakaldar bakoitzak bi bonu eskuratu ahalko ditu, nortasun-agiria erakutsita, eta erosketa ezingo da zatikatu, baina tiket bakoitzeko bi bonu erabili ahalko dira.

### 2,8 euroko igoera izango du uraren tarifak

Uraren prezioa %1,8 igoko da 2017an. Asteazkenean hartu du erabakia Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak. Bizkaiko etxe gehienetan hornidura eta saneamendu zerbitzuez arduratzen da, hau da, ura hornitzeaz gain, hondakin-urak hustu eta tratatu egiten ditu.

Familia bakoitzak batez beste 2,8 euro gehiago ordaindu beharko dituela suposatzen du honek. Hala ere, oinarritzko beharrak ordaintzeko zailtasunak dituzten pertsonak %30 gutxiago ordaindu beharko dute datorren urtean.

## Aduriz, Europa Ligan bost gol egin dituen lehen jokalaria

Aritz Adurizen gau magikoak 5 eta 3ko garaipena eman dio Athletici Genken aurka Europa Ligan jokatutako partidaren. Aduriz da Europako Ligako partida batean bost gol egin dituen jokalaria bakarra. Bilbotarrek behar-beharrezkoa zuten garaipena, lehiaketan jarraitzeko estatusunak ekiditeko.



Adurizek egindako bost goletatik hiru penaltiz izan dira, Genkeko jokalariek penalti argiak egin baitizkiete Iker Muniaini, Raul Garcinari eta Iñaki Williamsi. Lehen gola, berriz, eskumarekin egindako erremate baten bidez egin du gipuzkoarrak, eta laugarrena ezkerrekin, Yerayk emandako pase bikaina aprobetxatuz.

Bost gol egin arren, lehoiak estu eta larri ibili dira neurketako momentu askotan. Genkek norgehiagoka bikaina jokatu du, eta Athleticen aldea murriztu du hiru aldiz, Leon Bayleyren (2-1), Wilfred Ndidiaren (3-2) eta Tino-Sven Susicen golei esker (4-3).

Bi talde hauei mesede egin die Sassuoloren eta Rapid Vienaren arteko partidaren emaitzak. Bina egin dute eta, horri esker, F multzoko lehen bi postuetan dira Genk eta Athletic, lau jardunaldiren ostean.

Bestalde, Lopetegik, Espainiako hautatzaileak, Aduriz deitu du. Aurrelaria Espainiak jokatuko duen Mazedoniaren kontrako partidarako hurrengo deialdian sartu da, baita Ingalaterraren kontrako adiskidantzakoan ere.

## Stockaren Azoka BECen asteburuan



Euskadiko 'outlet' azoka handiena Bilbao Exhibition Centren gaurtik igandera arte izango da zabalik.

Stockaren Azokan 222 saltokik %80rainoko deskontuak eskainiko dituzte hainbat produktutan. Hala nola, arropa eta osagarriak, osasuna eta edertasuna, kirol-jantziak, etxeko gauzak, elektronika eta aisiarekin lotutakoak.

Lehen mailako marken produktuak prezio paregabea topatu ahalko dituzte kontsumitzaileek. Besteak beste, marka hauetako arropa eta oinetakoak egongo dira salgai: Adidas, Billabong, Calvin Klein, DC, Farrutx, Geographical Norway, Globe, Guess, Lois, Levis, Joma, Elements, Nike, New Balance, Mayoral, Tommy Hilfiger...

Horrez gain, eta berrikuntzen artean, edizio honek ezkongaei eta festetarako jantziei eskainitako saltoki bat izango du; eta baita moda aholkularitza eskainiko duen *personal shopper* bat ere.

## EGURALDIA ILUNA

Larunbatean, haize aldaketa batekin batera makurtuko da eguraldia. Goizetik aurrera zerua hodeiez estaliko da. Euria erruz egingo du. Euria egiteaz gain, dezente hoztuko du, izan ere, tenperatura maximoak bezperan baino 10 bat gradu beherago kokatuko dira. **Igandean**, berriz, tenperatura are gehiago jaitsiko da eta ezegonkortasuna izango da nagusi. Zaparrada mardulak botako ditu, eta noizean behin trumoiak jo eta txingorra ere egin dezake.

